

3. MERKATU-SEGMENTAZIOA

Irizpide geografikoei jarraituz, gure produktua hiri-eremuetan izango da erabilgarria batez ere. Dagoeneko garatuta dauden herrialdeetan jarri dugu gure jomuga, errazagoa izango litzatekeelako gai ekonomikoagatik. Herrialde batzuk; esaterako Norvegia eta Finlandia, birziklatzearen garrantziaren inguruan kontzientziatuta daude, horrela hain garatuta ez dauden herrialdeei adibidea emango die. Azkenean, gure helburua ere herrialde azpigaratuetara iristea da, modernizatzen laguntzeko eta ingurumenarekiko arduratsuagoak izateko.



Gure helburua lortu ondoren, eragin positibo handia izango du planetarengan eta herrialde askoren biztanleengan. Garatzean dauden herrialdeetan gure produktua ezartzea epe luzerako proiektua izango litzateke, baina momentuz ingurumenaren zainketa bermatzen duten herrialde garatuetan oinarrituko gara.

Gure produktua ez dago kontsumitzaileen sexu, adin, arraza, kultura-maila, genero edo erlijio jakin batera zuzenduta. Ez diegu gizabanakoei zehazki erreparatzen, baizik eta enpresetara joko dugu, esaterako; eraikuntzara, arkitekturara, iturgintzara... eraikinetan instalatu ahal izateko. Era berean, udalekin ados jarriko gara akordio batera iritsi ahal izateko, esaterako, zein eraikinetan jarriko diren eta zer prezio ezarriko den adosteko.

Diruari dagokionez, enpresekin hitz egingo genuke, baita negoziatu dugun elkarrekin ere. Prezioak faktore askoren arabera alda daitezke, baina beti egongo da gutxieneko bat, erabiliko dugun tamainaren arabera.

Gure produktua arrakasta lortzen badu, inpaktu handia lortuko genuke mundu mailan eta asko erraztuko du bertako kontsumitzaile guztien bizitza. Izan ere, produktu honek ingurumenaren babesarekin lotzen da. Beraz, ingurumenerako hobekuntza handiak nabarrituko genituzke; bai gizakiok, bai gure planeta. Zaborra botazeko mekanismo honek, zikinkeria erosotasunez birziklatzen bermatzen duenez, gizabanakoen ohiturak aldatuko lituzke, bizi kalitatea hobetuz.

Prezioa erosleekin erabakiko da, ziur aski eraikuntza enpresak izango direnak; hainbat arkitekto bulegoekin edo gai hauetan espezializatutako ingeniari batzuekin. Aurretik, gure produktua ezarriko dugun hiri edota herrietako udalekin hitz egingo dugu, prezio estandar bat ezarri ahal izateko. Beraz, kontsumitzaileek komunitatearen zergen bidez ordainduko lukete produktu innobatzailea.